

Funtsezko jarduerak

Gure gozotegi proiektuaren funtsezko jarduera nagusiak postreak eta tartak egitea dira, kalitate handiko produktuak prestatuz eta errezeta zehatzak jarraituz. Horretarako, gozogile aditua, osagai fresko eta kalitatezkoak eta tresna eta ekipamendu profesionalak behar dira. Produktu nagusiak sortzea da gure balio proposamena bermatzen duena eta bezeroak erakartzen dituen.

Era berean, bezero bakoitzaren eskaerara egokitutako tartak eta pastelak diseinatu behar dira eta horretarako, diseinatzaile edo marketing arduraduna, software grafikoak eta bezeroekin komunikazio zuzena behar ditugu. Produktuak bereziak eta erakargarriak bihurtzeko bezeroekiko konfiantza eta fidelizazioa handitzen du.

Sare sozialetan eduki erakargarriak sortu eta argitaratzea ere funtsezkoa da. Instagram eta TikTok bezalako plataformetan produktuen argazkiak eta bideoak partekatuz, prestaketa-prozesuak erakutsiz, marka ezagutarazten dugu eta bezero berriak erakartzen ditugu. Horretarako, marketing arduraduna, kamera eta software grafikoak eta sormen edukia sortzeko gaitasuna behar dira.

Azkenik, bezeroen eskaerak antolatzea eta kudeatzea da funtsezkoa. Eskaera guztiak jasotzen dira, lehentasunak ezartzen dira eta garaiz entregatzen da. Horretarako, salmenta arduraduna, sistema informatikoak edo web-aplikazioak eta bezeroekin komunikazio zuzena behar dira. Zerbitzu eraginkorra eta pertsonalizatua eskaintzeko bezeroak fidelizatzea ahalbidetzeaz gain negozio eredua sendo mantentzen du.

Prozesu hauek guztiak koordinazio ona eta antolaketa eskatzen dute, bezero bakoitzari zerbitzu pertsonalizatua eta kalitatezkoa eskaintzeko eta gure negozio eredua modu egokian funtzionatzeko.